24 nº zbk

Beasaingo Udala

# Beasaindik

MARZO 2018 MARTXOA

**Udal Aldizkaria** *Revista municipal*



## Erauskin gunea plaza bihurtzeko proiektua prest

*Definido el proyecto de remodelación del entorno de la plaza Erauskin*

AURKIBIDEA | *ÍNDICE*

**ETORKIZUNEKO BEASAIN ERAIKITZEN**

2 ¬ Erantzunkidetasuna, berdintasunerako erronka nagusia

¬ *Nuevo proyecto Herrilab para fomentar la corresponsabilidad*

¬ *Una plaza abierta, accesible y peatonal*

**BEASAIN, HERRI BIZIA**

4 ¬ Matxinbentako jaiak

¬ Ihauteriak

¬ Urrezko aizkolariak

¬ Talogintza tailerra

¬ Loinazko San Martin eguna

¬ Igartza Musika

¬ Stock azoka-beherapenak

**BEASAINDARRAK PROTAGONISTA**

6 ¬ Estreinatu da kiroldegiko rokodromo berria. Erramun Izagirre eta Jesus Mari Kortaberriari elkarrizketa

**BEASAINDARRENTZAKO INFORMAZIOA**

# GUTUNA



**Nekane Zaldua**
Berdintasun zinegotzia

## ERANTZUNKIDETASUNA, BERDINTASUNERAKO ERRONKA NAGUSIA

Azken urteetan, eta zer esanik ez azkenaldian, emakumeen eta berdintasunaren aldeko aldarrikapenak nonahi entzun ditugu. Baina aldarrikapen horiek, nahitaez, ekintzak, neurriak, erabakiak edota proiektuak ekarri behar dituzte ondotik gauzak aldatu nahi baditugu behintzat.

Horregatik, gure ustez, Udalak aldarrikapen horiek bere egin eta ekintzak gauzatu behar ditu, sustatzaile eta eredugarria izan behar du alor honetan.

Aurten, proiektu berria abiaraziko dugu Foru Aldundiarekin elkarlanean. Herrilab proiektu berritzaile honen bitartez parekidetasuna eta kontziliazio erantzunkidea sustatuko ditugu bertako eragile guztien parte hartze eta laguntzarekin.

Izan ere, gauzak aldatzeko, gizartea aldatu behar da eta kulturan eta ohituretan eragin behar da, baita lan munduan ere. Eta horretarako, eragile guztien inplikazioa ezinbestekoa da.

Erreferentzia eredu berriak sortu behar ditugu, gizonezkoen esparruetan emakumeen presentzia areagotu behar dugu eta nola ez, aukera berdintasuna bermatu eta arduren banaketa orekatua bultzatu behar ditugu. Eraldaketa hori guztia lortzeko bidea martxan jarriko dugu Herrilab proiektuaren bitartez.

### *La corresponsabilidad, principal reto para el futuro*

*Aunque mujeres y hombres compartamos presencia, responsabilidades, derechos y obligaciones tanto en el ámbito público como en el privado, mientras el reparto de las actividades de carácter doméstico y los cuidados, que influyen también en el ámbito laboral, no sea equitativo, no existirá igualdad real.*

*Y para lograrlo es necesario incidir en nuestras costumbres y realizar cambios profundos en el ámbito social y cultural. Asimismo, resulta imprescindible que trabajemos de manera conjunta todos los agentes del municipio (públicos, sociales y económicos), ya que para alcanzar la igualdad real debemos implicarnos TODAS y TODOS.*

*El nuevo proyecto, Herrilab, que pondremos en marcha en breve con la ayuda de la Diputación cuenta con la participación del tejido social e industrial de Beasain y busca definir, partiendo de la realidad y las necesidades locales, los pasos que debemos dar para la transformación de nuestra sociedad y nuestro municipio, hacia un Beasain más igualitario.*

# *NUEVO PROYECTO HERRILAB PARA FOMENTAR LA CORRESPONSABILIDAD*



*Este proyecto piloto tiene como objeto fomentar la conciliación y la corresponsabilidad mediante acciones concretas que mejoren el grado de igualdad entre hombres y mujeres en Beasain.*

*La corresponsabilidad es una de las herramientas que nos permite superar las desigualdades más profundas, las que impiden a mujeres y hombres aportar a la sociedad de forma igualitaria y limitan el desarrollo pleno de las mujeres. Y sin igualdad real, hombres y mujeres no son personas completas y nuestras sociedades no están completas.*

*Por ello, mediante este plan piloto, y con la participación de agentes socio-económicos (empresas de Beasain) y sociales (ciudadanía y tejido asociativo), se identificarán las necesidades y oportunidades y se definirán los ámbitos de actuación para desarrollar las prioridades propias del municipio que permitan generar una dinámica de cambio para avanzar con medidas concretas hacia una sociedad más igualitaria.*

Udalak lankidetza hitzarmena sinatuko du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Herrilab proiektu pilotua garatzeko. Honek helburu du parekidetasuna eta kontziliazio erantzunkidea sustatzea, emakume eta gizonen arteko berdintasuna eta gizarte berdinzaleagoa bultzatzeko. Proiektuan erakunde publikoek, gizarte eragileek, herritarrek eta eragile ekonomikoek parte hartuko dute. Lehenik eta behin beharren, aukeren eta errealitatearen diagnosia egingo da eta ondoren, Ekintza Plana garatu eta gauzatuko da aurretik aipatutako eragile guztien laguntzarekin, gizarte parekideago baten aldeko urratsak emaneteko.

# UNA PLAZA ABIERTA Y ACCESIBLE CON EL PEATÓN COMO PROTAGONISTA



*Tras la prueba piloto y el proceso de reflexión ciudadana en la que se plantearon y estudiaron diversas alternativas y opciones, el entorno de Erauskin ya cuenta con un proyecto concreto que parte de la idea de priorizar la peatonalización frente al tráfico rodado.*

*Erauskin se convertirá en una zona peatonal de estancia y encuentro para las personas, accesible y segura; una plaza, que además de potenciar el comercio, ofrecerá a la ciudadanía la posibilidad de realizar diferentes actividades al aire libre.*

*Se construirá un escenario de uso polivalente y se reubicará la actual estatua de San Martín de Loinaz para ensalzar su presencia en la plaza.*

*En cuanto al tráfico, los propietarios de garajes podrán acceder a los mismos a través de Nafarroa Etorbidea y unido a este proyecto también se está estudiando la posibilidad de recuperar la doble dirección en Oriamendi y aumentar el número de aparcamientos en las Pérgolas. Por último, se prevé que las obras den comienzo antes de verano.*

## Ingurunea biziberrituko da pertsonak erdigunean jarriz

### Herritarren topaleku

Merkataritza sustatzea eta oinezkoak lehenestea izan dira helburu nagusiak. Gauzak horrela, bertako errepidea kendu eta zorua berrituko da plaza irisgarri eta segurua sortzeko.

Pertsonak egoteko eta herritarren arteko harremanak sustatzeko espazio ezberdinak sortuko dira eta abanguardiazko hiri-altzariekin atonduko da plaza.

### Oholtza altua eta estatua

Plataforma edo oholtza Pergoletako ibilbidearen amaieran kokatuko da. Arku egitura batez estaliko da eta balio anitza izatea aurreikusten da, bertan jarduera ezberdinak egin ahal izateko.

Plazaren berrurbanizioarekin batera, Loinazko San Martinen omenezko estatua ere nabarmenduko da.



# OTSAILEAN BEASAINEN

## Ihauteriak 2018

### ARANEALDE


Argazkia: Aranealde

### LIZEO


Argazkia: B.U.

### OSTADAR


Argazkia: Ostadar

### LA SALLE


Argazkia: B.U.

### MURUMENDI


Argazkia: Murumendi


Argazkia: B.U.

Igartza Musika "Tutti Frutti"


Argazkia: uztarria.com


Argazkia: uztarria.com

Matxinbentako jaiak



Argazkia: Egur Sport SL



Argazkia: Egur Sport SL



Argazkia: Egur Sport SL

Urrezko aizkolariak


Argazkia: B.U.


Argazkia: B.U.



Argazkia: Aranealde


Argazkia: Aranealde

Otsailak 5 - Loinazko San Martin Eguna


Argazkia: AEK

Talogintza tailerra AEK


Argazkia: B.U.

“Stock Azoka” BAREAK

# ESTREINATU DA KIROLDEGIKO ROKODROMO BERRIA

**Erakustaldi baten bitartez estreinatu zuten otsailaren 23an Antzizar Kiroldegiko rokodromo berria herriko zein bailarako eskalatzaileek.**

**Herriko eskalatzaileek denbora zeramaten rokodromoaren egokitzapena eskatzen. Eskari horri erantzunez, eta oposizioak egindako proposamen bat aintzat hartuta, 2017an rokodromoa berritzeko prozesua abiatu zuen Udalak. Herriko eskalatzaileekin, eskolekin, Arrastaka mendi taldeko kideekin eta bailarako erreferenteekin elkarlanean landu zen proiektua eta lanak urte amaieran hasi ziren.**

**Entrenatzeko, kirol honetan trebatzeko eta eskalada praktikatzeko instalazio egokiagoak sortzea eta aukera berriak eskaintzea izan dira proiektuaren helburu nagusiak, eta horretarako, erabiltzaileen nahiak eta ekarpenak kontuan hartu dira rokodromoak eskalatzaileen eta erabiltzaileen beharrei erantzun diezaien. Bestalde, rokodromoen eraikuntzan aditua eta puntakoa den Tarragó enpresak gauzatu ditu lanak eta horri esker, punta-puntako eta gaur egungo azken berrikuntzei lotutako instalazioak sortu dira Beasainen.**

*El nuevo rocódromo ha sido estrenado por varias personas del municipio y la comarca que practican la escalada, quienes han participado, además, en la elaboración del proyecto de las nuevas instalaciones para que éstas respondieran a las necesidades y peticiones de las y los usuarios.*

*Las nuevas instalaciones han sido construidas por la empresa Tarragó especializada en rocódromos, en respuesta a las peticiones y aportaciones realizadas por personas referentes en este ámbito para así ofrecer a la ciudadanía un rocódromo de calidad y de última generación.*



ERRAMUN IZAGIRRE eta JESUS MARI KORTABERRIA "Mali"

**Nola landu zenuten rokrodromo berria eraikitzeko proiektua?**
***¿Cómo elaborasteis el proyecto para la construcción del nuevo rocódromo?***

**Erramun Irastorza**: Udalak eta kiroldegiak, baldintza batzuk jarri zizkiguten eremuari eta aurrekontuari lotuta eta horien arabera landu genuen proiektua, Goierrin zeuden beharrak kontuan hartuta.

Eskalatzaile bezala Beasaingo Udala bere osotasunean zoriondu nahi dut. Eskerrak eman nahi dizkiot EH Bilduri rokodromoa berritzea eskatzeagatik eta EAJ-PNVri eman duen erantzunagatik, izan ere, Udala proiektuan inplikatu da goitik behera. Horri esker, rokodromo duina dugu orain Goierrin.

**Jesus Mari Kortaberria**: *Hay muy buena relación tanto con Elena Ruiz (concejala de deportes) como con Jon Alcayaga (técnico), por ello, nos pidieron nuestra opinión para saber cómo debían ser las instalaciones y qué necesidades teníamos. Debía haber espacio para quienes quisieran dar sus primeros pasos en la escalada y también para las personas experimentadas. Las dimensiones del rocódromo son limitadas y, en ese sentido, estamos muy contentos con el resultado porque se ha aprovechado muy bien todo el espacio.*

**"Eskalatzaile bezala Beasaingo Udala bere osotasunean zoriondu nahi dut egindako lanari esker rokodromo duina dugulako orain Goierrin"**

***E.* IZAGIRRE**



## **ERRAMUN IZAGIRRE** eskalatzaileari eta **JESUS MARI KORTABERRIA "MALI"** Beasaingo ARRASTAKA MENDI ELKARTEko presidenteari **ELKARRIZKETA**

**Zein ezaugarri dituzte instalazio berriek eta zein aukera berri eskaintzen dituzte?** ***¿Qué características y novedades tienen las nuevas instalaciones?***

**E.I.:** Boulder modalitaterako (altura txikiko harriak eskalatzeko) egin da, sekula eskalatu ez duenetik hasi eta fuerte eskalatu nahi duenarentzat balio du, baina batik bat tarteko eskalada maila dutenentzako egin da. Altura txikiko eremua denez sokarik gabe eskalatu daiteke.

Beraz, rokodromo honen %80-90 boulderra da, baina kiroldegitik eskatuta beste zati txiki bat du altueran sokarekin eskalatu beharrekoa.

**J.M.K.:** *Novedades todas. El anterior estaba obsoleto y ya nadie acudía. Las formas, el equipamiento, el diseño… las características de este rocódromo son muy interesantes.*

***"Las formas, el equipamiento, el diseño... las características de este rocódromo son muy interesantes"***

***J. M. KORTABERRIA***

**Etorkizuneko kirola al da eskalada?** ***¿Es la escalada el deporte del futuro?***

**E.I.:** Zalantzarik gabe. Eskalatzaileon artean beti pentsatu izan dugu etorkizuneko kirola dela, baina momentu honetan badaude detaile batzuk hori adierazten dutenak, adibidez; kirol olinpiko bilakatu dela. Bestalde, geroz eta instalazio aproposagoak daude. Etorkizuneko kirola izateko potentziala badu, baina hori modek eta difusioak baldintzatzen dute. Ez dakit zer nolako progresioa izango duen eskalatzaile kopuruak, baina gora egingo du.

**J.M.K.:** *Es cierto que la escalada tiene muchísimo auge. En la zona de Beasain, estando rodeados de monte, hay mucha pasión por la montaña, y cada vez más por la escalada.*

***"Para mí, la montaña y la escalada han supuesto muchísimo. Es un deporte que une mucho a la gente"***

***J.M. KORTABERRIA***

**Rokodromo berriaren harira, eskalatzen hasi daitezkeen herritarrei zer esango zeniekete?** ***¿Qué dirías a las y los ciudadanos que puedan empezar a escalar a raíz de este nuevo rocódromo?***

**E.I.:** Probatzera animatzeko esango nieke, oso kirol dibertigarria da. Normalean beste kiroletan lantzen ez diren gaitasun fisikoak lantzen dira, adibidez, atzak erabiltzea, gerritik gorako muskulaturaren lanketa, malgutasuna, psikomotrizitatea, erreflexuak, koordinazioa… Gauza errazetatik hasteko gomendatuko nieke. Rokodromo berri honek, zorionez, asmo xumeekin hasi eta norberak bere progresioa ikusteko aukera eskaintzen du, izan ere, tamaina egokia du.

**J.M.K.:** *Es bonito que cada vez se acerque más gente a practicar escalada, cada cual con sus ilusiones y sus metas. Les diría que lo vivan intensamente y que les servirá en su vida cotidiana porque en la escalada te vas encontrando con diferentes obstáculos que debes ir superando, como en el día a día. Para mí la montaña y la escalada han supuesto muchísimo. Es un deporte que une mucho a la gente.*

**"Rokodromo berri honek, zorionez, asmo xumeekin hasi eta norberak bere progresioa ikusteko aukera eskaintzen du"**

**E. IZAGIRRE**

**EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA**
*DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES*

m8

**Asmubek antolatuta**
*Organizado por Asmube*

**MARTXOAK 5** *MARZO* **18:300**

Udaletxeko Batzar aretoa

**Hitzaldi solasaldia "Nire esperientzia, Emakume Kirolari gisa"** Charla coloquio "Mi experiencia como mujer deportista" **Elena Calvillo**

**MARTXOAK 7** *MARZO* **18:00**

Igartzako Jauregia

**Emakumearen astea ospatzeko jaialdia: Musika, antzerkia, bakarrizketak…** "Festival de Asmube por la Semana de la Mujer" con música, teatro, monólogos etc.

**MARTXOAK 8** *MARZO* **21:00**

Goienizekin batera
*Junto con Goieniz*

**Alanis Filma** Película Alanis

**MARTXOAK 10** *MARZO* **14:00**

**Bazkaria Olaberrian** Comida de la mujer en Olaberria.

**MARTXOAK 22** *MARZO* **21:00**

Goienizekin batera
*Junto con Goieniz*

**Chavela Filma** Película Chavela

**Udal Euskaltegiak antolatuta**
*Organizado por el Euskaltegi municipal*

**MARTXOAK 7** *MARZO* **10:00**

**M-Lehiaketa**

**Azken ekitaldia eta sari ematea** Última jornada y entrega de premios

**Hizlaria** *Ponente*: **Mamen Etxaniz. "Route 66" bizikletaz egindako bidaiari buruz** *Sobre su viaje en bicicleta por la "Route 66"*

# DATUEKIN JOLASEAN

**USURBE ANTZOKIKO IKUSLE BALANTZEA**
*BALANCE DEL NÚMERO DE ESPECTADORES DE USURBE*

| | 2015-16 | 2016-17 |
|---|---|---|
| **Zinema (haurrentzako, komertziala, zinekluba, eskolarra…)** *Cine (infantil, comercial, cineclub, escolar…)* | 27.629 | 26.906 |
| **Opera, balleta eta zuzeneko emankizunak** *Opera, ballet y espectáculos en directo* | 194 | 384 |
| **Antzerkia (haurrentzako eta helduentzako)** *Obras de teatro (infantiles y para personas adultas)* | 4.053 | 3.409 |
| **Dantza** *Danza* | 1.670 | 1.364 |
| **Musika** *Música* | 945 | 1.156 |
| **Besteak** *Otros* | 2.585 | 2.883 |
| **Guztira** *Total* | **37.076** | **36.102** |

# JAKINARAZPENAK *NOTIFICACIONES*

**EGUTEGI FISKALA** *CALENDARIO FISCAL*

| **ZERGAK ETA TASAK** *IMPUESTOS Y TASAS* | **Kobrantza epea** *Periodo de cobro* |
|---|---|
| **Ibilgailuen gaineko Zerga** *Impuesto sobre vehículos de Tracción Mecánica* | 2018.02.01 - 2018.03.31 |

**UDALEKO TASEN ARLOAN LAGUNTZA ESKAERA**
*SOLICITUD DE AYUDA EN MATERIA DE TASAS MUNICIPALES*
**(Ura eta zaborra** *Agua y basura***)**

| **LEKUA** *LUGAR* | **ORDUTEGIA** *HORARIO* | **Eskaera egiteko epea** *Plazo de solicitud* |
|---|---|---|
| iGUNEA | 07:30 - 14:30 | 2018.03.01 - 2018.03.31 |

**Informazio gehiagorako 943028050 telefonora dei dezakezu**
*Si desea más información puede llamar al 943028050.*

## LOTURAK *ENLACES*

- **kzGunea** www.kzgunea.eus
- **Musika Eskola** www.beasaingomusikaeskola.eus
- **Antzizar kiroldegia** www.antzizar.net
- **Udal Euskaltegia** www.beasain.eus/euskaltegia

**www.beasain.eus**

**Beasaingo** Udala

Lege gordailua SS 403-2016